


Osasun Eskualde Oinarrizkoa


Berriozar



Observatorio de Salud Pública de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren Behatokia



Fuente: SITNA-ISPLN



1. Argibide orokorrak

	Eskualdeko balioa	Nafarroa
Biztanleria (2023):	15.544 Emak.: %49 Giz.: %51	672.155 %49,5 %50,5
Batez besteko adina:	Emak.: 40,5 Giz.: 39,8	46,3 43,2
Ugalkortasun-tasa:	%121,3	-
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 28	%24,7
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%20,5	%32,0
Gainzahartzea:	%10,7	%17,2
Atzerritan jaiotako biztanleak:	%19,2	%17,9
Bizi itxaropena:	Emak.: 86 Giz.: 79,4	86,8 81,3
Biztanleria-densitate:	121,7 biz.km ²	68,9 biz.km ²
Zabalera:	127,63 km ²	9758,6 km ²
Zer Eskualdetakoa den:	Eremu Zentrala (ikus mapa)	
Udalerriak:	Atez, Ezcabarte (sólo incluye: Cildoz), Iza (excepto: Aguinaga, Atondo, Cia, Gulina, Iza, Lete), Juslapeña, Odieta (sólo incluye: Gascue, Guelbenzu), Berrioplano (excepto: Artica), Berriozar	

2. Komunitatea eta osasuna

Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak. Berriozaroko osasun-eskualde oinarrizkoan, beste eskualdeekin alderatuta, bakarrik bizi diren 80 urte edo

gehiagoko pertsonen etxeen ehunekoa (emakumeen % 30,9 eta gizonen % 17,2), pobrezia larriko arrisku-tasa (% 6,1) eta diru-sarreraren desberdintasuneko Gini indizea (% 27,7) txikiak dira. Hala ere, 20 urtetik beherako ama duten jaioberrien tasa (% 2,3) handia da.


Osasunari dagozkion emaitzak. Berriozaroko osasun-eskualde oinarrizkoa eskualdeen laurden txarrenean dago datu hauetan: soilik amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko haurrak (% 29,1) eta 3 patologia kroniko edo gehiago dituzten gizonak (% 13,1). Gainera, emaitza txarrenak ditu datu honetan: 2 motako diabetesa diagnostikaturik duten pertsonak (emakumeen % 7,6 eta gizonen % 11,7).

Inkesta-adierazleak. Hurrengo emaitza doitu* hauek Eremu Zentrala eskualdeari dagozkio (LAP zonifikazioa); Berriozaroko eskualde oinarrizkoa zona horretan dago. Eremu Zentralak emaitzarik onena du zenbait adierazletan: gehiegizko pisua izatea (15 urteko edo gehiagoko emakumeek: % 32,3) eta bizimodu sedentarioa izatea (gizonek: % 16,4). Aitzitik, emaitzarik txarrena du hiru adierazletan: frutak eta barazkiak egunero jatea (emakumeek: % 30,6; gizonek: % 24,5), tabakoa egunero erretzea (gizonek: % 24,9) eta alkohola astero edatea (gizonek: % 25,0).

***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.

3. Adierzleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 6-7: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Ud. Est.; 4-5: Errenta. Est.; 8: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatiaren Informazio Geografikoko Sistema); 10, 24-27, 30-31: Oinarritzko osasun-laguntza; 10-21: ESyCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 22-23: NOPLOI; 28-29: Farmazia prestazioa
Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (10-21) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.
* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduen, morbiditatearen eta osasun sistemaren adierazleentarako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; **2.** DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; **3.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; **4.** Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; **5.** Diru-sarreraren desberdintasunaren Gini indizea, datu baxuagoak berdintasun handiagoa adierazten du; **6 eta 7.** Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **8.** Baso-azalera; **9.** 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak; **10 eta 11.** Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 32,1 eta gizonak 24,4); **12 eta 13.** 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doitua: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 23,3 eta gizonak 16,5); **14 eta 15.** Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doitua (t. gordina: emakumeak 10 eta gizonak 24,5); **16 eta 17.** Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 13,3 eta gizonak 25,2); **18 eta 19.** Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 31,6 eta gizonak 24); **20 eta 21.** Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 31,8 eta gizonak 57,5); **22 eta 23.** Pisu gehiegi -gehiiegizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doitua, OMEK haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (t. gordina: emakumeak 32,1 eta gizonak 33,2); **24 eta 25.** 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doitua (t. gordina: emakumeak 6,8 eta gizonak 9,9); **26 eta 27.** 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 5,9 eta gizonak 12,6); **28 eta 29.** Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doitua: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 14,5 eta gizonak 7,4); **30.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; **31.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaien biztanleriaren %.